Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pauli Aginaga Santa Marina

Bermeo
Bizkaia (1932)



Aurkibidea

Biografia



Enseñanza kalean jaio zen 1932. urtean. Gurasoak ere bermeotarrak izan zituen. Umetan karmeldarren ikastetxera joan zen eta 13 urtegaz Bilbora joan zen neskame lanetan hasteko, baina arin bueltatu zen etxera. Gerora arrain-fabrikan aritu zen. Bere lagun Mari Erezumarekin batera egin genion grabazio hau.

Zintak

BRM-073

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-05-27
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Elizondo, Iratze - Goiria Mendiolea, Nerea

BRM-074

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-05-27
- **Iraupena**: 84 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Lehengo eta oraingo Bermeo

- **Erref**: BRM-073/004
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:06:22. **Bukatu**: 00:09:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Beraien umezaroko Bermeo txiki-txikia zen. Mundaka bidean olatu biziarekin olatuak errepidera heltzen ziren. Lamera txikia eta moila ere aldatuta daude. Lamera berdin dago, baina berriztatuta. Talak, ostera, berdin jarraitzen du. Industria kendu eta etxe asko eraiki dituzte.

Transkripzioa

- Eta zuen umetako Bermio zelakue zan?
- Mari: Txikitxue.
- Aldie dakozuie zuek, hamaika urteko aldie baia.
- Mari: Txikitxue, Bermio izen da txikitxue. Artez esateko portue izen da beteta on dana ze ostantzien txikitxue. Orain horren doblie da Bermio.
- Pauli: Bai.
- Mari: Doble baiño gehidxau.
- Pauli: Doble baiño gehidxau Mari.
- Mari: Gehidxau.
- Pauli: Orain da Bermeo kapital.
- Mari: Bai.
- Pauli: Hau mandie kapitala ta bestie Bermio.
- Mari: Bestie Bermio.
- Pauli: Bermio, Bermio zaharra ta bestie Bermio barridxe, Bermio bi.
- Mari: Ta gero Tala zer.
- Pauli: Ba Talan betikulez Talie.
- Mari: Baie hor bada barridxe ta ha bestie Talakue beste izen bat okin bidau.
- Pauli: Bai ba, hori be bai.
- Mari: Praidxeruek harek.
- Pauli: Plaidxeruek. Zetako plaidxeruek?
- Mari: Plaidxie urre dakolako.
- Pauli: Karkarkar. Tonpoie, hatxak, Tonpoie. Ta bueno bai, Aritxatxu be bai hurretxu Mari.
- Pauli: Bai.
- Mari: Bai plaidxi be bai.
- Pauli: Bai.
- Eta Lameran, Lamera ta porto mandie-ta be kanbixeta dau?
- Mari: Bueno lamerie dau kanbidxeta Mundeka bidie, Mundeka bidien lehen etorten izen da itsosue datorrenien bizi olatuek kamiñoraiño. Ta gero lamera txikitxue on zan han.
- Pauli: Bai.
- Mari: Ba kendu dau, kendu dotsoien lamera txikidxe, in dxauie barrurantz sartu trenan bidiek eta horrek atara itsosuri ta han ein dxauie erreformie.
- Pauli: Ta gero portuen be bai Mari, portun be bai.
- Mari: Gero portuen ez dai ba.
- Pauli: Moille barridxe ta.
- Mari: Hor ez daitz.
- Pauli: Bai.
- Mari: Nik horixe, Mundeka bidina daitz.
- Pauli: Bai.
- Baiña bestela Lamerie ta Goiko plazie ta antzeran?
- Pauli: Goiko Plazie bardin dau, atziñekulez bardin bardin. Baie Lamerie dau errenobata, dau barriztute dau Lamerie, ez da lehengue. Kioskue be on dana, bandie dxoten okitzen ezan dune ha bere solta dauie, kendu dauie ta imin dxauie barridxe ha bere. Oseake barriztute dau Lamerie dana orain Talie dau betikulez, ez da Mari? Handik, bidien bai etxe barridxek baie ostantzien bardin.
- Mari: Bermiori ein dotsoie industridxe kendu ta etxiek imiñi.
- Pauli: Bai.
- Mari: Baie etxikaz ez dau zer dxanik, etxie ezin dozu dxan ta.
- Gasteu.
- Mari: Ostantzien lehen on diez hasten ezan zara Bilbo bidien fabrikez

beteta manda bidxek ta orain etxiek eta etxik ta etxik ta kittu.
- Pauli: Bai.

2. Bizimodu zatarra

- **Erref**: BRM-073/005
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:09:26. **Bukatu**: 00:11:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Bermeotarren bizimodua beti izan da txarra: arrantzaleek gutxi irabazten zuten eta emakumezkoak lantegira joan behar izaten ziren. Asko harroak ziren eta dirua izan aurretik zorpetzen ziren, besteek bazutela pentsa zezaten.

3. Umetatik lanean eta eskolara gutxi

- **Erref**: BRM-073/006
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:11:03. **Bukatu**: 00:13:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Pauliren aita itsasoan zegoen bitartean ama lantegira joaten zen lanera, eta askotan baita basora ere egur bila. Bera ere gazterik hasi zen lanean. Mari urtebetez baino ez zen joan eskolara, 11 urte zituela, baina gainerakoa ume txikiak zirenez ez zegoen gustura eta utzi egin zuen urtebetegarrenean.

4. Karmeldarretan "pagokoak" eta debaldekoak

- **Erref**: BRM-073/007
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:13:53. **Bukatu**: 00:16:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Mari eta Pauli karmeldarren ikastetxera joan ziren, betiere debaldekoetara. "Pagokoak" uniformea janzten zuten, hor ikusten ei zen bakoitzak zuen dirua. Tabatarako ere ez zutela dio Paulik, ez baitzuten bildotsik jaten.

5. Moja batzuk ez ziren ondo portatzen

- **Erref**: BRM-073/008
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:16:03. **Bukatu**: 00:17:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Denetariko mojak zeuden karmeldarretan, batzuk berekoiak eta zantarrak zirela diote. Mari baserritarra zenez, askotan solora bidaltzen zuen "hermana Cayetana"k. Komunera joateko "permiso para el asiento" esan behar izaten zuten.

6. "La vitoria" historia-liburua; eskolara gutxi

- **Erref**: BRM-073/009
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:17:29. **Bukatu**: 00:19:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:
Karmeldarretako mojak euskaldunak ziren, baina eskolak erdaraz ematen zituzten; dotrina, ostera, euskaraz. "La Vitoria" historia-liburua ahizpa denek erabili zutela dio Marik, azkenerako, beretzat orriak falta zituela heltzen zen. Mari Matematiketan abila zen.

7. Erdararik jakin ez, ezta ulertu ere

- **Erref**: BRM-073/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:19:43. **Bukatu**: 00:21:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bermeon ez ei da inoiz erdararik egin, beti euskaraz. Erdara kanpotik etorritako jendeak ekarri zuen. Lamerako dantzaldietan askotan erdara ez zekitelako baztertuak izaten ziren. Pauli 13 urterekin Bilbora joan zen neskame erdararik jakin barik, negar asko egiten zuen ezin zirelako elkar ulertu; laster bueltatu zen etxera.

Transkripzioa
- Eta zuen erderie zelakoa zan?
- Pauli: Erderie? Erderie zelakue zan dan erderie. Dxakindxu erderaz ela? zelakue ezan dan esateko.
- Mari: Erregie?
- Erderie!
- Pauli: Doña Sofia, don karlos, berton presenta.
- Zuen erderie zelakue zan?
- Pauli: Gure erderie zelan ezan dan.
- Mari: Ta nik dxakin dxot erderaz?
- Pauli: Hori ba, hori ba.
- Mari: Ontzek be ez daitz.
- Pauli: Ez du dxakin guk erderaz. erderaz "si, no" "no, si". Besterik ezebez.
- Mari: Ez daitz er dan erderie.
- Pauli: Hamen ez da egon erdaldunik iñor be ta, dana euskaldune. Gero,

etor diez hortik inkisiziñue.
- Mari: Gero da honek.
- Pauli: Bai gero da atrapa doskune dana. Gero da etor dana trenak ekarriko jentie.
- Mari: Hori bai, Lameran dxuen ta honek aldeanatxuek eta dxantzan gureñe iñok etorri gure bez.
- Pauli: Bai.
- Mari: Honek aldeanatxuek erderarik ezebez ta bestiek erdera berbetan.
- Pauli: Modosa, modosa.
- Mari: Eurentzako ba dana.
- Pauli: Ta gu koitxaduek defenditeko erderaz ez duu dakin ta /dxakindxe/. Ni Bilbora dxun naitzen hamahiru urtegaz kridxada Bilbora, ta ez nauen dxakintzen zan ezebe! Jesus, ene bada! eske akordata beste barik tristezidxe sartzien dast.
- Ta erderaz jakin barik?
- Pauli: Bapez! Ezebez! gauze handirik ez, ahaldun moduen defendidu. Ta denpora gitxi garrenen etor naitzen ia negarrez hasten ezan nai ta, gure entendidu ta ezin entendidu. “Zer diñost honek andriek ba?” Igual imiek, imiek atenditeko imiek imetxu bi edo on zien ta eurekaz imikaz ta gero imitzen ezan nauen harrikue eitxen, ohiek eitxen, ha itxen, bestie eitxen, hamahiru urtegaz ta eruen nauien imetxuek bakarrik dxaboteko dalata. Ta klaro, hasi dasten erderaz berbak esaten ta nik entenditen ez ta “zer diñost ba?” ta negarrez beti.

8. Neskame jornal barik

- **Erref**: BRM-073/011
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:21:38. **Bukatu**: 00:23:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Pauli eta Mari neskame moduan lanean aritu zirenean, jornal barik joaten ziren, jatekoaren eta arropa truke. Etxean ume bat gutxiago izatea jaten emateko asko zen, horregatik joaten ziren asko eta asko. Gizonezko asko ere joaten ziren morroi.

9. Umetako jolasak

- **Erref**: BRM-073/018
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:36:42. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Tabak askotan margozten zituzten. Tronpaka, andeka, karneka, trapuzko panpinekin... aritzen ziren. Sokasaltoko abestiak abesten dituzte. Marik dio baserrian beti izan zutela lana.

10. Marik esnea saltzen zuen Bermeon

- **Erref**: BRM-073/019
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:40:10. **Bukatu**: 00:42:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Bost behi inguru izaten zituzten Mariren etxean, baina, antza, argal-argalak izaten ziren ez baitzuten jateko askorik. Hala ere, saltzeko beste esne ematen zuten eta kalera joaten zen Mari saltzen, askotan urarekin nahasten zuten. Pauliri esnegaina asko gustatzen zitzaion.

11. Patata gogor-gogorra saldu zuenekoa

- **Erref**: BRM-073/020
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:42:33. **Bukatu**: 00:46:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Marik behin patatarekin gertatu zitzaion anekdota bat kontatzen du. Itxura oneko patata zen, baina oso oso eskasa. Ohiko patata kiloa 3 pezetatan zegoen eta berak 11 errealetan jarri zuen saltzen. Andra batek dena erosi zion eta hurrengo egunean kexaka joan zitzaion. Hala ere, hurrengo egunean berriro saldu zuen. Bera ere engainatu egin zutela dio.

Transkripzioa
- Pauli: Esaizu hauri, patatigaz zer pasa jatzun. Esango dau Itsaso? Patatigaz zer pasa datson historidxe pasa iatson patatigaz. Ia, konta”
- Mari: Patatie erosi nauen Bermiora etor naienien. In nauen terrenotxu bet errentan ta patatie eraitxen. Ta hartun nauen ta patatie ederra gero, haulako patatie. Zelako patatie liso-liso-lisue, baie ezetara be ezin dxan.
- Pauli: Gogor.
- Mari: Gogorra. Ure berak patatiek ure! Saltsie loditxu bapez, patatiek beti eitxen dau saltsatxue loditxu, ke ba! ure! Ta “nik hau patatie berau dxan bihar ta nik honegaz ezin dxot ezer ba”. Dxun naien patatie saltzien gero neuk patata ona erosteko, ha saldu ta dxun biher dot hemen baiño merkiau emon biher dot. Hiru pezetan on zan patatie kilue ta nik esan doten hamaika errealien emongo dot, ta nik ein nauen hamaika errealien. Ta andra etor dxastenien zera, esan dotsatenien hamaike erriel ba benga dana piseten. Ta jentie hamaika errealien esan dauenien, dana beteta. Ta haur ta, itzizu bidxar dator ostabe, bidxar ekarko dxatsuie ostabe ta zuk itzi zu hauneri atzekuri be.
- Pauli: Kilotxu bet edo zeuk erun barik dana, baie merke ezan dalez.
- Mari: Itzizu ba. Ezetz.
- Pauli: Berak erun bi dauela dana.

- Mari: “Ni lelau ta si eske nik gure doten beste”. Harek ime danantzako erun dotsuz patatak. Hurrengo egunien etor zan, esan dotsat: "Engrazi, patatie dekot". “Patata. Ama txarridxen etxera, nik ez dot gure hori patatie-ta”.
- Ama txarridxen etxera?
- Mari: Bai.
- Pauli: Ama txarridxen etxera. Klaro, patatak gogorra ta harek erun dau neu nahi lehelau ta bera dana ta urten dotso patata zantarra. Ta beste egunien dxun datsonien ofreziten "Engrazi, etorri hamen dakot-ta". "Zeu ta zeu patatak, tire ama txarridxen etxera, ez dot bihar zure patatarik eta". Klaro, gogorrak.
- Mari: Baie halan holan saldu nauen nik.
- Pauli: Bai.
- Mari: Saldu nauen ha patatie. Merkiau emoten izen dot, emon ta eskapa neu plazatik.
- Pauli: Likide zauen patata gogorra.Orduen libre, hori ez da.
- “Supervivencia”.
- Pauli: “Exactamente”. Bai.
- Mari: Neuk erosi dot, niri saldu dostenak be ba emon dost.
- Pauli: Bai.
- Mari: Kintzel bi patata.
- Pauli: Asi ke gero, zeuk beste batzuri emotie ez da ezan pekatue, ezta Mari?
- Mari: Ta gainera ...
- Pauli: Zeu engaiñe ta merkiau hondiño.
- Mari: Niri, ta nik merkiau emon, saldu merkiau. Eske ezin dxe, ezin dxan baie ta haunek kanpotarrak orduntxek etorritxe hasitxe on zin Bermiora eta asko, "Oye, una patata, ni el presto se puede comer". Neuk halan: “hamen nire patatien anztekue”. “Ni el presto se puede hacer”.
- Pauli: Harridxe ezan dok ha, harridxe.
- Mari: Harridxe ezan dok ha!
- Pauli: Ai Jesuse!

12. "Foki-foki" egin zeure amari

- **Erref**: BRM-074/001
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gogoan dute gerra heldu zenean hegazkinen beldurra zutela, kanpaiak jotzen zituztela eta babeslekuetan ezkutatzen zirela. Bermeoko andrazkoak umore handikoak izan dira, eta soldadu italiarrek "foki-foki" esaten zietenean (larrutan egin nahi zutela edo), "Foki-foki" beren amari egiteko erantzuten zieten.

13. Tropa italiarrek hartu zuten Bermeo

- **Erref**: BRM-074/002
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:01:48. **Bukatu**: 00:02:41

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gernika erretzen zegoela jakin zuten. Berehala hartu zuten Bermeo tropa italiarrek. Francok engainatuta etorri ei ziren italiarrak.

14. Bermeon euskaraz beti

- **Erref**: BRM-074/013
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:22:39. **Bukatu**: 00:23:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bermeon beti dena euskaraz egin da. Eurek ez dute erdararik jakin. Harrituta geratzen ziren norbaiti erdaraz ondo egiten entzuten ziotenean.

15. Domeketan paseatu, zinera eta etxera

- **Erref**: BRM-074/014
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:23:36. **Bukatu**: 00:25:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Orduan parranda gutxi egiten zen. Hamabietatik aurrera inor ere ez kalean. Pauli kaletarra da eta larunbatetan zinera joaten ziren. Paseoan ibiltzen ziren, mutilak kalearen alde batetik eta emakumeak bestetik. Gero zinera eta handik etxera. Domeketan berdin. Mari baserritarra izan da, eta behar eta behar.

16. Andrazkoak briskan, gizonak tutean

- **Erref**: BRM-074/015
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:25:09. **Bukatu**: 00:26:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:
Domeketan kartetan jokatzen zuten Marik-eta. Briskan. Gizonak tutean.

17. Dirurik ez zinea ordaintzeko

- **Erref**: BRM-074/017
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:26:25. **Bukatu**: 00:28:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Mariren denboran neguko domeketan, dantza egoten zen zazpiak arte. Zinera gero, eta handik etxera. Pauliren garaian ezberdina zen. Marik-eta ez zuten dirurik izaten askotan zinea ordaintzeko, eta paseoan igaro behar denbora. Amak nobioa bilatzeko esaten zien. Erromeria Lameran egiten zen udan eta Goiko Plazan neguan.

18. "Mesedez", dantza eskatzeko formula

- **Erref**: BRM-074/018
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:28:11. **Bukatu**: 00:30:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Dantza lotuan egiten zuten gehienbat. Oso lotsatiak ziren. Bi neska egoten ziren elkarrekin dantzan eta bi mutil etortzen ziren dantza eske "mesedez" esanez. Marik Gernikan gertatu zitzaiona kontatzen du. Kalabazak ematen zalea zen neska baten eta mutil baten arteko gorabeherak.

19. Bermeoko neskei Bermeoko mutilak gustatzen

- **Erref**: BRM-074/019
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:30:54. **Bukatu**: 00:31:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Gustuko mutilak urri zeuden Mariren denboran gerragatik. Bermeoko neskei Bermeoko mutilak gustatzen zitzaizkien.

20. Bikoteen artean muxu gutxi

- **Erref**: BRM-074/021
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:32:12. **Bukatu**: 00:33:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Gutxi ezkontzen ziren haurdun. Musurik ez zen ematen kalean. Atarian ('kolarrean') txandaka sartzen ziren bikoteak muxu batzuk eman ahal izateko.

21. Astero konfesatzera

- **Erref**: BRM-074/022

- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:33:15. **Bukatu**: 00:34:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Astero konfesatzen ziren. Bazen fraide bat esaten ziena aski zela hilean behin konfesatzea, baina ez zioten aintzat hartzen. Zer bekatu egingo zuten ba eurek? Orain dena da libre.

22. "Haragixa haragixaz" egiten zuen galdetu fraideak

- **Erref**: BRM-074/024
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:35:49. **Bukatu**: 00:37:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Neska bati fraideak konfesatzeko orduan galdetu zion ea senargaiarekin "haragixa haragixaz" egiten zuen ('andratan' -larrutan-). Ez zion ulertu.

23. Lehen mutila neskaren atzetik, orain alderantziz

- **Erref**: BRM-074/026
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:39:45. **Bukatu**: 00:43:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Andra Mari eguna zen nobioa egiteko eguna. Dantzan ari ziren neskei begira egoten ziren mutilak. Paulik dio orain neskak direla mutilaren atzetik ibiltzen direnak, "errekaua" egiten dietenak. Ez dute hau oso begi onez ikusten. Lehen sasoi batean senargaia izandako neskek ez zuten estimaziorik, inork ez zituen nahi. Orain berriz alderantziz ei da.

24. Jaietan nobioa topatu ezean, hurrengo urtera arte jai

- **Erref**: BRM-074/027
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:43:10. **Bukatu**: 00:44:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Madalena Eguna egun handia izaten zen Paulirentzat, baina ez Marirentzat. San Migelak ziren haren jaiak. Dio San Migeletan gorde egin behar izaten zirela arropa berriak hurrengo urtera arte, jada ezin zelako nobiorik aurkitu.

25. San Juan egunez Gaztelugatxera eta Bakiora

- **Erref**: BRM-074/028
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:44:22. **Bukatu**: 00:46:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
San Juanetan san Juanera eta Bakiora joaten ziren erromeriara. Itzulera autobusean egin ohi zen. Itzulitakoan Bermeon ere egoten zen dantza. Zapata-kaxan eramaten zuten bazkaria.

26. Ezpainak pintatzea gustatu bai, baina ausartuez

- **Erref**: BRM-074/029
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:46:38. **Bukatu**: 00:48:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

Laburpena:
"Terlizezko" arropak egiten ziren san Juan egunerako. Abarketak ziren oinetakoak. Gorputzeko ilea 'atxurrez' kentzen zuen Paulik. Ez ziren makilatzen. Ezpainak pintatzea gustatu bai, baina ez ziren ausartzen.

27. "San Juanen jatekoa daroanak jaten dau"

- **Erref**: BRM-074/030
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:48:37. **Bukatu**: 00:49:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
San Juanen kanta. Ez du ongi gogoratzen. Marik antzinako esaera bat dakar gogora: "San Juanen jatekoa daroanak jaten dau". Mendian ere jaka daroana ez ei da bustitzen.

28. Isuna ordaindu Aratusteetan mozorrotzeagatik

- **Erref**: BRM-074/031
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:49:58. **Bukatu**: 00:51:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Aratusteak debekatuta egoten ziren. Baina hala ere Pauli eta lagunak

mozorrotzen ziren. Aguazilak jarraitu, neska bat harrapatu eta besteen izenak esanarazi nahi izan zion, biluzik jarriko zuen mehatxupean. Ez zion esan. Isuna denen artean ordaindu zuten.

29. Espaloiak arimenak dira gaueko hamabietatik aurrera

- **Erref**: BRM-074/040
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 01:04:20. **Bukatu**: 01:05:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Paulik dio amak esaten ziela gauez, hamabiak jota gero, beti kalearen erdi-erditik etortzeko etxera, alboak, espaloiak, arimenak direlako. Eta ez begiratzeko atzera zarata entzun arren.

30. Meñakan eta Bermeon euskara diferentea

- **Erref**: BRM-074/049
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:18:48. **Bukatu**: 01:19:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Bermeon eta Meñakan euskara diferentea egiten da, doinua batez ere diferentea. Marik, Meñakan jaioa izan arren, Bermeokoa egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com